

3. Funtsezko Bazkideak

Zein bazkide eta hornitzaile behar ditugu proiektua martxan jartzeko?

Proiektua martxan jartzeko, behar ditugu dron fabrikatzaileak, kalitate handiko dronak hornitzeko. Medikuntza eta lehen laguntzako hornitzaileak ere behar dira, botikak eta biziraupen-kitak emateko. Software garatzaileak izango dira dronaren kontrol eta nabigaziorako teknologia sortzeko. Larrialdi zerbitzuak eta gobernuak gure zerbitzuak integratzeko lagunduko dute. Azkenik, logistika enpresak baliabideak modu seguruan banatzeko beharrezkoak dira.

Zergatik dira garrantzitsuak?

Bazkide hauek garrantzitsuak dira, gure helburuak lortzea haien laguntzarekin soilik posible delako. Dron fabrikatzaileek, hornitzaileek, software garatzaileek eta logistika enpresek proiektuaren funtzionamendu egonkorra bermatzen dute. Larrialdi zerbitzu eta gobernuarekin lankidetzak gure zerbitzuak integratu eta optimizatzea ahalbidetzen du. Haien laguntzarekin, zerbitzu eraginkorra eta fidagarria eskain diezaiokegu bezeroei. Hauek gabe, proiektuaren arrakasta arriskuan egon litzateke.